



OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.05.23

Ordua: 17:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onspena.
2. Lehiaketa bidez "Medikuaren etxea" izeneko udal jabetzako etxebizitza errentan emateko kontratuaren esleipena.
3. 1/2025 aurrekontu aldaketa. Hasierako onspena.
4. Osiña Etxeak, S.L.k 5 poligonoko 420 lurzatian egindako eraikinaren balkoien alboak itxitzeko edo ez auziaren erabakia.
5. Adierazpen instituzionala, LGTBI+ fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.
6. Alkate Ebazpenak.
7. Eskerak eta galderak.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONSPENA.

2025eko apirilaren 25eko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. LEHIAKETA BIDEZ "MEDIKUAREN ETXEA" IZENENKO UDAL JABETZAKO ETXEBIZITZA ERRENTAN EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Idazkariak azaldu du "Medikuaren etxea" izeneko udal jabetzako etxebizitza errentan emateko lehiaketaren plegu arautzailea 2025eko otsailaren 28an egindako osoko bilkura arruntean onetsi zela.



ARANTZAKO UDALA

Jarraian, 2025eko martxoaren 19an lehiaketaren iragarkia argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atarian, eskaintzak aurkezteko hilabeteko epea irekiz. Horrela bada, eskaintzak aurkezteko epea iraganda eskatzaile bakarra agertu zen, Luz Marina Mendoza Loaisiga.

Plegu arautzaileko 9 klausulan xedaturikoari jarraiki, aurkezturiko gutunazalak ireki ziren eta 2025eko maiatzaren 22an Unitate Kudeatzaileak "Medikuaren etxea" izeneko udal jabetzako etxebizitzaren errenta kontratua Luz Marina Mendoza Loaisigari esleitzea proposatu zuen, 5.520,00 €/urteko kopuruan.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- "Medikuaren etxea" izeneko udal jabetzako etxebizitzaren errenta kontratua Luz Marina Mendoza Loaisigari esleitzea 5.520,00 €/urteko kopuruan.

2.- Esleipendunari jakinaraztea, plegu arautzaileko 11 klausulan xedaturikoari jarraiki, akordio honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, 10 egun balioduneko epean hilabete bateko errentari (460,00 €) dagokion kopuruaren fidantza aurkeztu beharko duela Arantzako Udalean.

3.- Esleipendunari jakinaraztea, errenta kontratua administrazio agirian formalizatu beharko dela akordio honen jakinarazpena jaso eta, gehienez ere, hilabeteko epean.

4.- Akordio hau Luz Marina Mendoza Loaisigari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3. 1/2025 AURREKONTU ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkari-kontuhartzaileak 1/2025 aurrekontu aldaketa egiteko 2025eko maiatzaren 16ko txostenean xedaturikoa azaldu du.

1/2025 ALDAKETA: KREDITU BEREZIA (AFEKTATUTAKO BALIABIDEEN GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 1621 6000001	5/974 LURZ. TRUKAKETA	1.930,00 €
1 9200 6260002	ORDENAGAILU BATERIAK	3.280,00 €
GUZTIRA		5.210,00 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8701001	AFEKTATUTAKO BALIABIDEEN DIRUZAINZAKO GERAKINA	5.210,00 €
GUZTIRA		5.210,00 €



ARANTZAKO UDALA

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- 1/2015 aurrekontu aldaketei onespena ematea.
- 2.- Akordio hau udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.

4. OSIÑA ETXEAK, S.L.K 5 POLIGONOKO 420 LURZATIAN EGINDAKO ERAIKINAREN BALKOIEN ALBOAK ITXITZEKO EDO EZ AUZIAREN ERABAKIA.

Idazkariak Osiña Etxeak, S.L.k 5 poligonoko 420 lurzatian egindako eraikinaren obra amaierako dokumentazioa aurkeztu duela azaldu du.

Horri dagokionez, adierazi du udal arkitektoaren 2025eko maiatzaren 7ko txostenean xedaturikoaren arabera, egindako balkoien iskinak irekita daudela; aldiz, hasierako proiektua itxita egingen zirela zehazten zen. Irekiera horiek ez datoz bat Arantzako eraikuntzen tipologia tradizionalarekin, baina, aldi berean, aipatzekoa da eraikuntza herriko gune historikotik urrun egin dela. Beraz, arkitektoaren iritziz, udalak balkoi horiek dauden bezala utzi edo itxitzea errekeritzea erabaki beharko luke.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Osiña Etxeak, S.L.k 5 poligonoko 420 lurzatian egindako eraikinaren balkoien alboan dauden bezala uztea onestea; izan ere, udal arkitektoak erran bezala, herriko gune historikotik urrun dago eta, ondorioz, ez luke Arantzako eraikuntzen tipologia tradizionalan eragin nabarmenik izanen.
- 2.- Akordio hau Osiña Etxeak, S.L.ri jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

5. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, LGTBI+ FOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE ondorengo adierazpen instituzionala egitea:

Maiatzaren 17an, LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarteko Egunean, LGTBI+ pertsonentzat garrantzi handia duen mugarri historiko bat gogorarazten da. 1990an, homosexualitatea gaixotasuntzat hartzeari utzi zion Osasunaren Mundu Erakundeak. Hori aurrerapauso nabarmena izan zen LGTBI+ pertsonen duintasuna eta eskubideak onartzeko bidean. Transexualitatea, berriz, 2022ra arte ez da despatologizatu. Izan ere, nahasmendu mentalen atalean jasota zegoen OMEren Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (ICD-11), 2022an eskuliburu hori eguneratu zen arte.



ARANTZAKO UDALA

Hala, gaurko egunean, Nafarroako Gobernuak erabat arbuiatu nahi du LGTBI+fobia dakarren edozein adierazpen, eta berresten du LGTBI+ pertsonen eskubideak defendatzeko, sustatzeko eta bermatzeko duen konpromisoa.

Azken hamarkadetan, aurrerapen handiak egin dira LGTBI+ eskubideen arloan: LGTBI+ pertsonen eskubideak aitortzen eta bermatzen dituzten zenbait lege onetsi dira, bai Nafarroan, bai estatuan, eta horrekin batera gizartean zenbait aldaketa izan dira. Hori guztia, erakundeek eta kolektiboek batera egindako lanari eta konpromisoari esker. Azken horiei aitortu eta eskertu behar zaie lan nekazina egin dutela.

Hala ere, hainbat lorpen izan badira ere, egungo testuingurura erronka handia da. Azken aldian, gorrotodelitu gehiago erregistratzen ari dira, eta bigarren kausa izatera iritsi dira, Barne Ministerioak gorrotodelituen bilakaerari buruz egindako azken txostenaren arabera. Halaber, gero eta zabalduago eta normalizatuago daude diskurtso antifeministak eta LGTBI+fobikoak, erdietsitako aurrerapen eta eskubideak zalantzan jartzen dituztenak.

Nafarroako Gobernuarentzat, LGTBI+ eskubideak giza eskubideak dira, eta halakotzat babestu eta defendatu behar dira. Horregatik, Nafarroako Gobernuak, adierazpen honen bidez, diskriminazio- eta indarkeria-adierazpen oro gaitzesten du, eta berresten du konpromisoa duela LGTBI+ arloko politika publikoak egiteko, LGTBI+ eskubideak bermatu eta sustatzeko eta Nafarroa erkidego askotarikoagoa eta berdinzaleagoa bilakatzeko.

6. ALKATE EBAZPENAK.

2025eko 72tik 84ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 18:05 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte